


**EMAKUMEEN  
ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO  
II. PLANA**

**URIBE KOSTAKO  
ZERBITZU  
MANKOMUNITATEA**

**2011 - 2014**

parte-hartze prozesua      proceso participativo  
**EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO II. PLANA**      **II PLAN PARA LA IGUALDAD  
DE MUJERES Y HOMBRES**  
URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA      MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE URIBE KOSTA





<b>0. Aurkibidea</b>	
<b>1. Sarrera</b>	(03. orrialdea)
<b>2. Aurrekariak: II. Plana, abian zegoen prozesuaren emaitza</b>	(06. orrialdea)
<b>3. Metodologia</b>	(07. orrialdea)
<b>3.1 Prozesua prestatzeko</b>	(07. orrialdea)
<b>3.2 Dokumentu hau idazteko</b>	(07. orrialdea)
<b>4. UKZMko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana</b>	(08. orrialdea)
<b>4.0 Faseak</b>	(08. orrialdea)
<b>4.1 II. Planaren helburua</b>	(09. orrialdea)
<b>4.2 Berdintasunerako II. Planaren lan-printzipioak</b>	(10. orrialdea)
<b>4.3 Planaren metodologia eta lan-estrategia</b>	(11. orrialdea)
<b>4.4 Arloak / Interbentziorako ardatzak:</b>	(13. orrialdea)
<b>4.4.A 0. Arloa. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza</b>	(13. orrialdea)
<b>4.4.B Emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea</b>	(22. orrialdea)
<b>4.4.C Antolaketa sozial erantzukidea</b>	(25. orrialdea)
<b>4.4.D Emakumeen aurkako indarkeria</b>	(28. orrialdea)
<b>4.5 Ekintzak</b>	(31. orrialdea)
<b>4.5.A 0. Arloa. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza</b>	(32. orrialdea)
<b>4.5.B Emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea</b>	(36. orrialdea)
<b>4.5.C Antolaketa sozial erantzukidea</b>	(38. orrialdea)
<b>4.5.D Emakumeen aurkako indarkeria</b>	(41. orrialdea)
<b>4.6 Kronograma</b>	(43. orrialdea)

# 1. Sarrera



Emakume eta gizonen zinezko eta benetako berdintasuna gure gizartearen egitura politiko, sozial eta ekonomikoaren oinarritzko elementu demokratikoa da.

Emakumeek eta gizonak gizartean bete izan dituzten rola errotik aldatzen ari dira, eta ondorioz, berdintasunerako bidean aldaketa sozial garrantzitsuak sortu dira. Aldaketa horiek gertatzeko funtsezkoa izan da Mugimendu Feministaren eta emakume-elkarteen ekarpena eta aldaketa bultzatzen eta gauzatzen isilean aritu diren emakumeen eta gizonen ahalegina.

Hala ere, nahiz eta aurrerapenak izan eta sexuaren arabera bereizkeriaren aurkako printzipioa bermatzen dituzten legeak egon eta berdintasuna lege juridikoaren oinarritzko balioa izan; eta nahiz eta zinezko eta benetako berdintasuna lortzeko dauden oztupoak kentzeko euskal herri-aginteei zuzendutako mandatua egon, emakumeen desberdintasuna eta bereizkeria oraindik badagoela erakusten dute lan-merkatuari, parte-hartze eta erabakiak hartzeari, etxeko lanak egitea eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen zainketari, emakumeen aurkako indarkeriari, pobrezari, .etab. buruzko datuek. **[Datu konkretuak Mankomunitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Zirriborroan [esteka] agertzen dira. 2010eko urtarrila eta ekaina bitartean egin zen eta herritarren eta Mankomunitateko herritar eta teknikari eta politikarien parte-hartzea handia izan zen]**

Hori guztiagatik, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak (hemendik aurrera UKZM) Uribe Kostako Mankomunitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (hemendik aurrera II. Plana) bultzatzeko akordioa lortu zuen, baita ere Mankomunitatea osatzen duten zazpi Udaletarako balio duena, Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz Udaletarako, hain zuzen ere.

II. Plan hau, Berdintasun Zerbitzua sortu zenetik berdintasunerako politika publikoek izan duten bilakaeraren eta esperientziaren ondorioa da, euskal tokiko administrazioetan eta Autonomi Erkidego guztian, orokorrean, gertatu den antzera. Bilakaera honetan ere genero eta berdintasun gaitan adituak diren pertsonen iritziek eta emakumeen mugimenduak egindako proposamenek eta hausnarketek influentzia izan dute.

II. Plan hau UKZMko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2007-2011) ezartzearen eta ebaluatzearen ondorioa izan da baita ere. Era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarduera protokoloaren eta II. Plana egin ahal izateko diagnostikoaren eragina izan du ere.

II. Plana genero-berdintasunaren gaiaren inguruko legegintzako esparruaren arabera sortzen da: hau da, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen artean



Benetako Berdintasuna lortzekoaren arabera; eta 4/2005 Legearen, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren arabera. Lege hauek onartzea mugarririk historikoa izan zen gure erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburuan aurrera egiteko.

Zehazki, 15.3 artikulua nabarmendu behar da, honen bitartez foru aldundiak eta udalak behartuta baitaude Eusko Jaurlaritzaren gidalerroak jarraituz berdintasunerako programak eta planak abian jartzeko; eta 10. eta 14. artikulua **[hauen idazlan zehatza diagnostikoan agertzen da]** bai tokiko administrazioen, bai Foru Aldundien eginkizunak aipatzen dituzte.

Gainera, Plan honen helburuak *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana - IX. Legeldirako jarraibideak* plangintzan adierazitako jarraibide eta gidalerroekin bat egiten dute. Beraz, herri-aginteei koordinaturik eta orokorki nola jardun behar duten eta berdintasunaren alorrean botere publikoek egin beharreko lana bideratuko duten esku-hartze ildoak eta jarraibideak jasotzen dira.

Gaur egungo eta gertuko dugun legegintza izendatzen ari gara baina berdintasun politiken arauen eta programen testuingurua oso garatua dago.

NBEko I. Mundu Batzarra (1975) eta Emakumeen aurkako bereizkeria modu oro deuseztatzeari buruzko Konbentzioa (1975)

ospatu zenetik, eta Beijing-ekoa (2010) egin arte, hainbat Mundu Batzarra ospatu dira. Europa mailan, Zuzentarauak, Gomendioak eta Ebazpenak 1975ean sortzen dira eta gaur egun jarraitzen dute VI. Ekintza Programarekin (2006-2010).

II. Plana hurrengo lau urteetarako UKMZko berdintasun politika publikoen adierazpena da, eta bereizkeriak erauzteko helburuarekin zuzenduta dauden estrategia eta neurriak eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna erdiesteko pausoak aintzat hartzen ditu.

Urtero egingo diren ebaluazioen mende egongo den tresna malgua izango da, gaur egun, aldaketak eta transformazioak izugarrikoak baitira.

Gainera baliabideak eskasak dira gure testuinguruan, eta ekonomia eta finantza alorreko krisiaren ondorioz ez dakigu etorkizunean zein baliabide ekonomiko izango ditugun.

II. Planaren helburuak adostasuna lortzeko prozesu garrantzitsuaren emaitzak dira, eta hauen lehentasuna gizartearen beharren edo aldaketarako duten botere estrategiko handiaren arabera zehaztu da.

Adostasuna lortzeko prozesu hau bai hiritarren, bai Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko eta hau osatzen duten zazpi Udaletako

(Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz) (hemendik aurrera UKMZ7U) politikari eta teknikarien aldetik egin da.

Gainera, indarrean dagoen oinarritzko legegintza espezifikuari egokitzen da eta V. Planak araututako gidalerroak jarraitzen ditu, beraz, bai Udaletako, bai Mankomunitateko sailen, zerbitzuen edota zuzendaritzen partaidetza bultzatzeari garrantzia ematen dio, berdintasun politikek pertsonen bizitzako esparru guztietan eragina izan behar baitute.

Beraz, II. Plana programa bakoitzerako ekintza multzo bat ezartzen du kronologikoki; hala ere, ekintzak aldatu daitezke urtero egiten den ebaluazioaren ondoren, honen emaitzek eskainiko baitigutelako hurrengo urtean zeintzuk izango diren eragin handiago izango duten jarraibideak benetan edukiko ditugun baliabideak ezagututa.

Malgutasun honek aurrekontuen partiden aldaketa egiteko aukera ematen du, beti aplikatu beharreko arautegiaren eta planaren sustapenerako sortu diren esturturen arteko adostasunaren mende izanda, eta herritarren partaidetzaren bideak ere aintzat hartuta. II. Plan honek lanerako dokumentu baten bila dabil, horregatik, ez ditu arautegiak, ezta diagnostikoaren datuak, ezta dokumentu hau ulertzeko atxikitu den beharrezko terminogai glosarioa ere hedatzen. Dokumentu guzti hauek prozesuan erabili

den partaidetzarako online atarian aurki daitezke: <http://www.plan-igualdad.com/uribekosta>

### **Berdintasunerako Planaren ezaugarriak Mankomunitatean**

Hainbat ezaugarri baldintzatu dute bai II. Plana egiteko prozesua, bai amaieran lortutako emaitza ere:

- UKMZ7U-k aurrekontu eskasak ditu gaur egun.
- UKMZ osatzen duten zazpi udalen eskumen-errealitateak desberdinak dira.
- Egiturak desberdinak dira udalerrien artean (biztanlego, zerbitzu, giza baliabide,... kopuruak desberdinak dira).

# 2. Aurrekariak



## II Plana, abian zegoen prozesuaren emaitza

- 2006
  - Berdintasun Zerbitzua sortzen da (egitura berria)
  - Berdintasun Eragilea kontratatzen da, berdintasun politika publikoak sustatu eta koordinatuko dituena.
  - Emakume Batzordea abian jartzen da (gaur egun, 2010eko azaroan, 23 emakumek osatzen dute).
- 2007
  - UKZM7Uko Berdintasunerako I. Plana.
  - Agenda 21 eta Berdintasunerako Informazio Batzorde Politikoa (Agenda 21eko Informazio Batzordean berdintasun gaia sartzeari erabakitzen da. Gaur egun, 11 ordezkari ditu: 5 gizon eta 6 emakume).
  - Eudeleko Berdintasanean parte hartzen du.
- 2008:
  - Batzorde tematiko informalak teknikariekina
    - Kultura eta Kirola
    - Euskara
    - Tokiko Agenda 21
    - Zerbitzu Sozialak
    - Hirigintza
- 2009
  - Genero Indarkeriaren aurkako Jarduera Protokoloa
- 2010
  - UKZM7Uko Berdintasunerako Diagnostikoa egiten da.
  - II. Planaren zirriborroa idazteko parte-hartze prozesua.
  - II. Plana idazteko parte-hartze prozesua, adostasuna bilatu ahal izateko eta lehentasunezko ekintzak erabakitzeke.



## 3.1. Prozesua prestatzeko metodologia.

II. Plan hau partaidetzari esker egin da. Prozesua parte-hartze metodologian bideratuta prestatu da. Proposamenak jasotzeko hainbat bide erabili dira, bai bide presentzialak (bilerak, lantaldeak, elkarrizketa pertsonalak), bai online bidea ere (foroekin sortutako tresna, online galdeketak...). Horrela, bai teknikarien eta Mankomunitateko politikarien, bai antolatutako eta antolatu gabeko herritarren partaidetza ere posible izan da.

Lehen unetik, parte-hartze prozesu integral bat jarri da abian, eta honi esker II. Planaren definizioa eta idazlana egiteko ezinbesteko hiru oinarri aintzat hartu dira:

- Diagnostikoan jaso diren datuen bilketa, beharrak eta jarduera aukerak identifikatzeko.
- Egituren laguntza eta hauen sendotzea.
- Egitura berriak sortzea.

Hala ere, II. Plan hau idazterakoan, ahalegina egitura berriak sortzera bideratu da, bai hauek euren bidea hastea ezarritako koordinaziorako eta informaziorako bide berriak erabiliz, bai batzorde bakoitzeko arduradunek erantzukizuna berea eginez ere.

II. Zirriborroa egin ondoren egituren sorrera landu behar zen, euren arteko komunikazioa eta koordinazioa sustatzeko eta

planaren idazlanean eragina duten bestelako eragileei informazioa helarazteko. Prozesu honen emaitza: Emakumeen Kontseilua eta bestelako egituretako emakumek eta gizonek parte hartu dute jardueren inguruan adostasuna lortzeko.

Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua berbera da zazpi Udalentzat, eta plana guztiei zuzenduta dagoenez, adostasunerako eta koordinaziorako lankidetzak beharrezkoa da, udal bakoitzeko sailak eta eskumenak ez baitira berdinak. Desberdinak dira ere euren jardura gaitasunak eta giza baliabideak. Udal batzuk lau pertsona dituzte guztira, eta egoera honek plan hau sustatu behar duten hainbat pertsonen lan zama gehiegi handituko litzateke egitura berriak sortzekotan.

## 3.2 Dokumentu hau idazteko metodologia.

II. Plan hau antolatzeko egiturak eta alor formala definitu ondoren, diagnostikoan azaltzen diren ekintza guztiekin oinarritzko dokumentu bat egin zen eta online tresnan zintzilikatzeaz gain, diagnostikoan parte hartu zuten pertsona guztiei bidali zitzaion.



- 4.0 **Faseak**
- 4.1 **II. Planaren helburua**
- 4.2 **Berdintasunerako II. Planaren lan-printzipioak**
- 4.3 **Planaren metodologia eta lan-estrategia**
- 4.4 **Arloak / Interbentziorako ardatzak:**
  - 4.4.A **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza**
  - 4.4.B **Ahalduntzea eta balioak aldatzea**
  - 4.4.C **Antolaketa sozial erantzukidea**
  - 4.4.D **Genero indarkeria**
- 4.5 **Ekintzak**
  - 4.5.A **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza**
  - 4.5.B **Ahalduntzea eta balioak aldatzea**
  - 4.5.C **Antolaketa sozial erantzukidea**
  - 4.5.D **Genero indarkeria**

### 4.0. Faseak

#### II. Planaren lehen Zirriborroa.

Adostatutako diagnostikoan oinarrituta dago. Ekintza ugari ezartzen dira lehen zirriborro honetan. Hurrengo urratsa, Mankomunitateko Berdintasun Teknikariarekin izandako lankidetzaren bidez, adostasunak lortzea izan da: zeintzuk diren lehentasunezko ekintzak; horietako zein ekintzetan duten eskumenak udaletako eta Mankomunitateko sail bakoitzak; zeintzuk duten eragin handiagoa; eta zein pertsonak diren II. Plan hau sustatzeko arduradunak.

Horretarako II. Plana ezartzerako inplikatu diren pertsonekin 15 bilera ospatu dira, eta proposatutako ekintzak berrikusi ondoren eta landu ezin diren beste ekintza horiek kendu ondoren, zera adostu genuen:

#### II. Planaren bigarren Zirriborroa.

Batzorde Teknikoek onartu ostean bileretan parte hartu zuten pertsona guztiei helarazi zitzaion. Bigarren Zirriborro hau ere prozesuan parte hartu duten pertsona guztiei eta plan honetan interesa dutenei bidali zitzaion; eta web-ean zintzilikatu zen.

Ondoren, Berdintasunerako Tokiko Agenda 21ekin ospatu beharreko bilerari ekin zitzaion Bigarren Zirriborro hau aurkezteko





helburuarekin eta Udal bakoitzeko ordezkari bakoitzak plana abian jartzeko aurrekontuak eztabaidatu eta adostu zituzten.

## II. Planaren Hirugarren Zirriborria

Beraz, horrela, udal bakoitzak aurkeztu zuen UKZMko Berdintasunerako II. Planaren Hirugarren Zirriborria egin genuen.

Batzorde Politikoan zeuden ordezkariak, eta bakoitzari zegokion Udalan, ekintzen zerrenda osoa eta hauek gauzatu ahal izateko beharreko aurrekontua aurkeztu zituzten, onarpena lortzeko helburuarekin. Ondoren, bilera bat ospatu zen zazpi udaletan adostatutakoa biltzeko eta batzorde politikoan ekintzen inguruan adostasuna lortzeko.

## UKZMko Berdintasunerako II. Plana egiteko azken dokumentua

Mankomunitateko Gobernu-Batzarrak II. Plana onartu ondoren, dokumentu hau Emakundera helarazi zitzaion honen onarpena lortzeko helburuarekin. Azkenean, Emakundek itzulitako dokumentua zazpi udalek onartu beharko dute.

## 4.1. II. Planaren helburua

II. Planaren helburua Uribe Kostan emakumeen eta gizonen berdintasunaren erdiespen progresiboa da. Helburu orokor honetatik, hainbat helburu espezifikoak ondorioztatzen dira:

- 4/2005 Legean ezartzen diren prozedurei eta eskaerei erantzuna ematea.
- Konpromiso politiko irmoa ezartzea.
- Errealitateari itsatsitako tresna baliagarria, praktikoa, parte-hartzekoa, adostutakoa, malgua eta irekia izatea.
- Etengabe autoebaluatze dokumentu bat egitea.
- UKZM7Uko oinarriko eta erreferentziako tresna batean bilakatzea bai bere barneko arloan bai bere jardura arloan ere.
- Sail desberdinen jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak ezartzea.

Horrez gain, berdintasun politiken ezartzearen aurrerapausoa alde batetik, eta bestetik hurrengo legealdian plan hau eraginkorra egiteko helburuarekin egituren sortzea eta dagoeneko dauden egituren sendotzea da plan honen helburu instrumentala.

II. Plana egiteko epea 2010eko abenduan amaitu zen. Ondoren, Mankomunitateko eta udal bakoitzeko osoko bilkuran onartu behar zen, ekintzak gauzatzeko epea 2011-2014koa izanik. Plana gauzatzeko eta ebaluatze garrantzitsua da Berdintasunerako II. Plan honen oinarriko printzipioak kontuan hartzea.



## 4.2. Berdintasunerako II. Planaren lan-printzipioak

II. Planaren garapena, egin zenetik planifikatu eta ezarri zen arte, ildo batzuetara egokitzen da.

1) Plan hau 4/2005 Legeak ezarritako **mandatu legalari leiala** da, Lege honek ezartzen du Tokiko Administrazioek planak edo programak garatu behar dituztela Eusko Jaurlaritzako plangintza orokorraren gidalerroak eta ildoak jarraituz (15. artik.).

2) Plan hau ardatzen eta bide estrategikoen aldetik Eusko Jaurlaritzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **V. Planak adierazitako ildoetara egokitzen** da. O arlo bat (Gobernantzaren hobekuntza) eta hiru ardatz estrategiko ditu: Ahalduntzea, Erantzukidetasuna eta Indarkeria.

3) Plana **integratzailea** da: Plana bai UKZMko berdintasunerako diagnostikoan, bai gaur egun arte Mankomunitatean garatutako jardueretan ere oinarritzen da. Udalek, elkarteek eta mankomunitatean lanean aritzen diren entitate bakoitzak ekintzarako joera propioa dute, baina berdintasuna erdiesteko eraginkortasuna eta efikazia handiago lortzeko beharrezkoa den elkarrekiko pentsamendu sistematikoa falta da. Continuum jarduera honen inguruan integratzailea da plana, eta hau ezartzerakoan, jarduera eta ekintza horiek modu koordinatuan

garatuko dira, eta horrela, generoaren araberako eragin handiago baten bila, helburu multzo bat lortu ahal izango da.

4) Plan **parte-hartzailea**: plan iraunkor bat definitu ahal izateko, ezinbestekoa da inplikaturako alderdi guztien parte-hartzea sustatzea. Parte-hartze hori barnekoa (Mankomunitate bertako eta bere udaletako sailak eta zerbitzuak) nahiz kanpoko (emakumeen elkarteak eta feministak, berdintasunaren aldeko erakundeak) izan beharko du. Partaidetza planaren ezarpena eta ebaluazio faseetan jarraitu behar du, plangintza fasean eta plana idazterakoan gertatu den bezala.

5) Plana **eguneratu** daiteke: gizarte garaikideetan egoerak eta beharrak abiadura handian aldatzen dira, eta horregatik beharrezkoa da plan malgua eta irekia planifikatzea (dokumentua ez da itxita egongo, lan-tresna izango baita), aldaketa horietara eta baliabideen erabilgarritasunera etengabe moldatu ahal izateko. Horrela, planak etengabeko eguneratzea posible egiten duten mekanismoak hedatzen ditu.

6) Plana **ebalatu** daiteke: Etengabeko ebaluazioa atal saihestezina da politika publikoen definizioaren eta ezarpenaren hobekuntza lortzeko. Egungo garai honetan, generoaren araberako eraginari buruzko jarduera trebegoa eta iraunkorragoa lortu beharra dago, eta seguroenik, baliabide gutxiagorekin egin beharko dela.



Horregatik, ebaluazioaren adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen definizioa II. Planaren ezinbesteko atal batean bilakatuko da. Uribe Kostako berdintasunerako helburuak lortzeko ekintzak urtero bideratu ahal izango dira ebaluazioari esker.

### 4.3. Planaren metodologia eta lan-estrategia

Dokumentu hau idazteko Metodologia azaltzen den atalean dagoeneko deskribatu dugun moduan, **plangintza** plan hau sustatzeko eta ezartzeko batzordeetan parte hartu duten pertsonen adostasunaren bitartez egin da.

Etorkizunean, eta urteroko plangintza desberdinen arabera, funtzionamendua antzekoa izan beharko luke, edo agian hobegoa, urtean behin egingo den ebaluazioan hobekuntzarako proposamenak egon daitezkeelako. Helburu nagusia batzordeetan urteroko plangintza egitea da, II. Plan hau egiterakoan erabilitako prozedura berdina erabiliz, **komunikazioari** garrantzia handia emanez, eta inplikaturako pertsona guztiei bileretan adostatutakoari buruz informatuz.

Lehenago aipaturakoari jarraituz, testuinguru ekonomikoak aldaketak jasaten baditu, egungo krisialdi egoeran erabaki den lau urteetarako plangintza hau alda daiteke.

II. Planaren ezarpenean, sail arteko batzordea eta erakunde arteko batzorde teknikoa gako estrategikoak dira generozeharkakotasunari erantzuna emateko, mankomunitate barruko koordinazioa posible egiteko oinarritzko eredia osatzen baitute.

UKZMa osatzen duten zazpi udaletako ekintzen arteko **koordinazioari** erraztasuna emateko lagungarria izango da ere. Garrantzitsua da batzorde hauek osatzen dituzten pertsonen euren udalan berdintasun politikak sustatzea, eta horrela, mankomunitateko udal bakoitzean hiritarrei orokorrean zuzendutako ekintzak eragina izan dezaten lortzea.

#### Ebaluazioa:

- Plana garatzerakoan sortu diren sendotasunak eta ahultasunak zehazteko, eta kasu batzuetan, jardueren bideratzean laguntza emateko tresna da.
- Genero-zeharkakotasunaren prozesuei buruz hausnarketa egiteko eta esperientziaren ikasketarako tresna da.

Binako estrategia bat proposatzen da:

1. Planaren betetze maila aztertzeke ebaluazio bat, 2/1988 Legeari jarraituz Emakundera helaraziko zaiona, UKZMko Berdintasun Zerbitzuak ezarritako irizpideak eta metodologia erabiliz. Urte bateko maiztasuna izango du.

2. Prozesuei, emaitzei eta hobetu beharreko esparruei buruzko ebaluazioa.

Ebaluazioaren helburuak honako hauek dira:

- II. Planaren betetze maila ezagutzea eta informatzea.
- II. Planaren kudeaketa eta funtzionamendua ezagutzea.
- Hausnarketarako prozesu bat sustatzea urteko programazioak hobetu ahal izateko.

Ebaluatu beharreko gutxieneko aldeak honako hauek dira:

- Plangintza egiterakoan ezarritako ekintzak betetzea.
- Lantaldearen funtzionamendua.
- Arduradun politiko eta teknikoen inplikazioa.
- Komunikazioa: erakunde barnekoa eta erakunde kanpokoak (erabiltzaileei eta hiritarrei zuzendutakoa).
- Ekintzak garatzeko ezarritako kronogramen betetze maila.

Planteamendu hau betetzeko beharrezkoa da:

- Etengabeko ebaluazio bat, erakunde barnera bideratuta, Planaren segimendurako tresnak aintzat hartuta (adierazleak). Hauei esker, lehen adierazitako urteroko txostenak lortuko dira, eta horrela Plana moldatu ahal izango da egiten diren aldizkako ebaluazioen emaitzen arabera.
- Azken ebaluazio orokor bat.



## 4.4 Arloak / Interbentziorako ardatzak:

### 4.4.A.

#### 0 Arloa. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza.

Plan hau abian jarri ahal izateko, beharrezkoa da koordinaziorako egiturak sortzea eta hori lortzeko ahalegin handia egin behar da.

Emakumeen desoreka egoera bizitzako edozein esparrutan aurkitzen dugu eta, beraz, berdintasun politikek esparru guzti horietan esku hartu behar dute. Egitura aldetik dauden diskriminazioak ezagutu nahi ez diren neurrian eta politika neutro bat egiten saiatzen diren bitartean, itxuraz, pertsona guztiak berdintzatzen direla dirudi, baina biztanlegoaren zati bat diskriminatua izaten jarraituko du, emakumeak hain zuzen ere. Honengatik, Udaletako eta UKZMko arloetan eta sailetan gizonez eta emakumez osatutako biztanlego baten alde lana egiten dutenek, honen betearaztean parte hartu behar dute.

Gaur egun arte, Udalek emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua duten ekintzak egin dituzte, kultur sailek sustatuta nagusiki; udalen arteko koordinazioa funtsezkoa da: esku-hartzeari eraginkortasuna ematen dio eta bikoizketak ekiditen ditu,

esfortzuak bildu eta baliabide eskasak errentagarri egiten ditu krisialdi garai honetan.

Gobernantza 0 arloan II. Plan honen inguruan sortuko diren egiturak azaltzen dira, baita bileren maiztasuna eta beharrezko informaziorako eta komunikaziorako kanalak ere, koordinazioa eta funtzionamendua egokia izan daitezen.

Hartu beharreko neurriekin II. Planaren benetako ezarpen eraginkorra lortu nahi da:

- Egitura berriak sortuz prozesua abian dagoen bitartean.
- Dagoeneko dauden egiturak sendotuz.
- Egitura guztiak koordinatuz.
- Bai barneko bai kanpoko komunikazioa ere sustatuz.
- Partaidetza posible eginez.
- Bestelako erakundeekin lankidetzak jarraituz, jardunbide egokiak partekatuz, sareak sendotuz,...

0 Arlo honetan proposatzen diren ekintzak Emakundeko V. Planak proposatzen dituen **edukien blokeak** jarraituz antolatuta agertzen dira.



### A. Udal administrazioetan eta nagusiki kapital publikoa duten enpresetan egindako berdintasunerako planak

Dokumentu honek Mankomunitateko udalaz gaidiko berdintasunerako Plan bati erantzuna ematen dio.

### B. Berdintasunerako unitate administratiboak

4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, 10. artikuluko lehen paragrafoan, Foru Aldundien eta tokiko administrazioen egoera xedatzen du eta honako hau adierazten du:

*1. Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan. 10. artikulua. Foru- eta toki- administrazioak.*

Alde horretatik, UKZM7Uk 2006an sortutako unitate administratiboari eusten dio eta honen zeregin eksklusiboak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzea, programatzea, aholkatzea eta ebaluatzea izango dira.

Unitate honetara zuzendutako aurrekontua UKZMko Berdintasun Zerbitzurako teknikaria kontratatzeko da.

4.5 ataleko tauletan – Ekintzen Taula, aurrekontu hau Planan ezartzen diren ekintzetarako lanorduetan sakabanatuta agertzen da.

### C. Koordinaziorako Egiturak

Berdintasun Zerbitzu honek zera sustatzen du:

#### Egitura politikoak:

#### **Tokiko Agenda XXI eta Berdintasunerako Batzorde Politikoa.**

Honen konpromisoa batzorde bakoitzean berdintasun politikari denbora tarte bat bideratzea da. UKZMko erabaki-organoa da. Berdintasun arloan ildo estrategikoak ezartzen ditu.

#### **Berdintasunerako Mankomunitate barneko Batzorde Politikoa.**

Euren erakundearen barne Emakumearen Zinegotzigoa duten udalek (2) eta bestelako udaletan berdintasun politikak barne dituzten sailetan lanean ari diren ordezkariak (5) parte hartuko dute.



**Udal Informazio-Batzordeak.** Bertan berdintasunerako gune bat izendatzea eta bermatzea.

### Egitura teknikoak:

Egitura teknikoen helburua lankidetzan aritzeko bideak ezartzea da, horrela emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduera koordinatuak egin eta sektore publikoan genero-politikak ezarri ahal izateko.

Izaera funtzionala badute ere. Lanerako, koordinaziorako eta partaidetzarako organo bat osatzen dute, jarduera arlo bakoitzean genero ikuspegia txertatzean aurrerapenak lortzeko.

Bere jarduera arloaren barne urteroko berdintasunerako planan ezarritako ekintzen plangintza, ezarpena eta ebaluazioa dira bere eginkizun nagusiak.

**Erakundeen arteko Batzorde Teknikoa** Mankomunitateko zortzi erakundeetako idazkariekin eta kontu-hartzaileekin osaturikoa.

**Mankomunitateko Sailarteko Batzorde Teknikoa,** Mankomunitatean eskumenak dituzten sail bakoitzeko arduradun batekin osaturikoa.

**Udalen arteko Kulturako Batzorde Teknikoa** Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udal bakoitzeko Kulturako arduradunekin osaturik.

**Berdintasunerako Kontseilua.** Aurreko legegaldian osaturikoa, Mankomunitatea osatzen duten zazpi udaletako emakumeen parte-hartze soziopolitikorako bidea da. Mankomunitateko emakumeen partaidetza sustatzeko elkarrizketarako tresna irekia eta malgua da.

**Protokoloaren Segimendurako Batzordea** (bere bi alderdietan, batzorde politikoa eta batzorde teknikoa) etxeko tratu txarrak eta sexuaren araberako indarkeria jasaten duten biktimei emandako arreta hobetzeko. Indarkeri matxistaren biktimen arretarako politiken koordinaziorako arduraduna da organo hau, eta bertan indarkeria jasan duten emakumeen arretarako zerbitzuetako berdintasun teknikariek parte hartzen du.

Koordinaziorako egituren barne eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Jarduera Protokoloa eguneratzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinaziorako kanalak sortu nahi dira Plan honekin.



Bestalde, UKZM7Uko garrantzitsua den koordinaziorako beste egitura bat Eudel da, zerbitzuaren berdintasun teknikaria Berdinsarearen\* barne baitago.

\* Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Eudeleko Udalerri Euskaldunen arteko Sarea. Udalen arteko lanerako gune bat da eta ekiteko eta ebaluatzeko irizpide berdinak jarraitzen dituzte parte hartzen duten udal guztiek; azken finean, koordinaziorako tresna bat da.

#### D. Estatistikak eta azterlanak genero ikuspegitik

Azterlanak egiterakoan, bai Mankomunitatean bat zazpi udaletan ere, sexu aldagaia derrigorrez kontuan hartu beharko da. Baita ere erakunde bakoitzaren barne egindako datuetan, balorazioetan, etab.

#### E. Administrazioen prestakuntzazko ekintzak genero ikuspegitik eta prestakuntzazko ekintza espezifikoak berdintasun arloan

Egiturak sortzeaz gain, politikariei gai honen inguruan prestakuntza emateko beharra agerian geratu da plan hau idazterakoan.

Egitez, adostu egiten da, 2011rako aurrekontuak gutxituak izan arren, korporazio berriek prestakuntzarekin sortu behar dutela,

horrela jakin dezaten berdintasun politikak eta egitura aldetik dauden desberdintasunak zer diren.

Prestakuntza hori norbanakoaren sustapenerako kontuan hartzeko aukera eskatzen da. Horregatik, II. Plan honetan prestakuntzak funtsezko garrantzia du.

Prestakuntzarako bi formatu aurkezten dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunari eta berdintasun politikei buruzko ikastaro espezifikoak.
- Kartan jarritako prestakuntza, jardunbide egokiei buruzko hitzaldien bitartez, lan konkretu bat egiteko baliogarriak izango diren gai zehatzak azalduz. Aldez aurretik, UKZM7Uko administrazioetako langileek beharrezkoa den prestakuntza espezifikoak jasoko dute.

#### F. Berdintasun gaien edukiak enplegu publikorako hautapen prozesuetan eta prestakuntza espezializatua berdintasunean

Ez da neurri konkreturik aurkeztu.

#### G. Lengoaia modu ez sexista edota bestelako elementu komunikatiboak erabiltzen dituzten aldizkari ofizialak eta web orrialdeak





Lengoaia eta, orokorrean, komunikaziorako elementuak (irudiak, mezuak,...) sail bakoitzaren ardura izango dira. Administrazioa langileen sentiberatasuna lortzeko tresna da, gure hitz egiteko, idazteko eta elkar komunikatzeko modua aldatu ahal izateko eta horrela, bai emakumeek bai gizonak ere gure gizartean egin dituzten ekarpenak ikusgarri egiteaz, errespetatzeaz eta ezagutzeaz gain, berdintasunezko gizarte bat eratu dezagun denon artean.

8 erakundeetako sail bakoitzeko barneko nahiz kanpoko dokumentuen berrikuspena ekintza bat izan dadin planteatzen da.

#### **H. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa aurreikusten duten arauak**

Eudelek emandako gomendioei jarraituz, Udal bakoitzean nahiz UKZMan emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal araubide bat diseinatzea ezartzen da helburu bezala 2011 urtean. Araubide honek ondorengo I eta J atalak arautuko dituela ulertzen dugu.

#### **I. Aurrekontu-programak eta arauak genero ikuspegitik eta aurrekontu espezifikoa berdintasunerako**

#### **J. Arlokako eta zeharkako planak genero ikuspegitik**

#### **K. Kontratatzerako, dirulaguntzak emateko eta hitzarmenatarako berdintasun irizpideak**

Kontrataziorako agirietan azpikontratututako enpresek dituzten berdintasun barne irizpideak baloratuko dira, baita ere enpresekin sinatutako hitzarmenetan eta dirulaguntzen politiketan ere.

#### **L. Epaimahaietan eta auzitegietan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua**

Proiektuen kalifikaziorako epaimahaietan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bilatuko da.

#### **M. Berdintasunerako partaidetza-organoak eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua kontsultarako eta parte hartzeko organoetan eta prozesuetan.**

Berdintasunerako partaidetza-organoak eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua kontsultarako eta parte hartzeko organoetan eta prozesuetan.

## II. Plan honen interbentziorako ardatzak

Emakundek ezarritako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren irizpideak jarraituz, Plan honek zera aurkezten du:

- Interbentziorako hiru ardatz: 1. Ahalduntzea eta balioak aldatzea. 2. Antolaketa sozial erantzukidea eta 3. Emakumeen aurkako Indarkeria.

Interbentziorako ardatz hauentzat UKZM7Uk lehentasunezko helburu hauek ezartzen ditu:

- I. Planaren ondorioz garatu diren eta eragin handien izan duten ekintzekin jarraitzea.
- Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren arloan Jarduera Planarekin UKZM7Un (2009/2011) jarraitzea eta denboran zehar luzatzea Berdintasunerako II. Plan hau indarrean dagoen bitartean.
- Herritarrek eta emakumeen kolektiboek eskatu dituzten lehentasunezko ekintzak sustatzea.

Interbentziorako Ardatz bakoitza **Programetan** zatituta dago:

**Helburu** multzo bat ezarri

**Ekintza** zehatz batzuen bitartez gauzatuko direnak

## 1. Ardatza: Ahalduntzea eta balioak aldatzea

### 1. Programa: Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea.

1. Helburua: Ariketa fisikoak egiteko ohitura duten, eta ondorioz, autozaintza fisikoaren aldeko ohiko praktikak dituzten neskatoen, emakume gazteen eta emakume helduen kopurua handitzea.

Ekintzak:

1. Klubekin elkarlanean aritzea talde femeninoak sortzeko.
2. Kirolaren aldeko "Martxoak 8 txapelketa". Zainketaren autonomia sustatu eta emakumeen aisiarako eredu berriak garatu ahal izateko kirolak duen garrantziaz biztanlegoa sentsibilizatzeko kirol klubekin eta Kirol Sailarekin elkarlanean aritzea.

2. Helburua: Etxeko lan erreproduktiboaren garrantzia aitortzea.

Ekintzak:

1. Etxeko lan erreproduktiboaren garrantzia aitortzeko kanpaina egitea.
2. Etxeko langileen eta kontratatzaileen eskubideei eta betebeharrei buruzko informaziorako edota aholku emateko kanpaina diseinatzea.

3. Helburua: Txikitatik hezkidetzatza sustatzea.

Ekintzak:

1. Hezkuntza zentroetan sentsibilizaziorako programa bat egitea hezkidetzatza sustatzeko
2. Ikastetxeetan genero berdintasunerako prestakuntzazko ekintzak garatzea.



## 2. Programa: Baliabide ekonomikoetan eta sozialetan sarbidea izatea eta hauek kontrolatzea.

4. Helburua: Emakume enpresarien eta emakume ekintzaileen kopurua eta beren proiektuen bideragarritasuna handitzea.

Ekintza:

1. Emakumeek lanari ekimenarekin ekitea sustatzea.

5. Helburua: Tradizioz gizonei bideratutako lanbideetan emakumeek sarbidea izateko prestakuntza espezifikoak sustatzea.

Ekintzak:

1. Emakumeentzako nahiz gizonentzako tradizioz berdintasunezkoak izan ez diren lanbideei buruzko informazioa emateko eta sentsibilizatzeko ikastaroak abian jartzea.
2. Behargintzari lanpostuak eraztea.

6. Helburua: Emakumeen eta gizonen arteko bretxa digitala eta emakumeek teknologia berrien erabileran aurkitzen dituzten zailtasunak murriztea.

Ekintza:

1. Bretxa digitala murriztea.

7. Helburua: Emakumeen alkoholaren gehiegizko kontsumoa aurreikustea.

Ekintza:

1. Emakumeen alkoholaren gehiegizko kontsumoa aurreikusteko kanpaina diseinatzea. 2012.

8. Helburua: Emakumeek duten baliabide sozialetarako sarbidea hobetzea.

Ekintzak:

1. Mankomunitatean eta udal bakoitzean dauden baliabide sozialen eskaintza eguneratzeko azterlanak egitea.
2. Azterlanaren emaitzak hedatzea dauden baliabideak eguneratuz

## 3. Programa: Partaidetza soziopolitikoak eta eragina

9. Helburua: Emakumeen elkarten arteko sareak sustatzea.

Ekintza:

1. Emakumeen elkarten sareko lana erraztea.

10. Helburua: Kirol eta kultur eskaintza emakumeen eskariei egokitzea, euren ahalduntzearen aldeko ikastaroak, tailerrak edota ekintzak eskainiz.

Ekintzak:

1. UKan emakumeek egindako zinearen erakustaldia.
2. Erakusketen edukiak egokitzeko irizpideak ezartzea.
3. Emakumei bideratutako ahalduntzearen aldeko tailerrak sortzea eta abian jartzea.
4. Ahalduntze Eskola abian jartzea.

11. Helburua: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko helburuak dituzten emakumeen nahiz gizonen elkarteak sustatzea.

Ekintza:

1. Planari esker burutzen diren ekintzetan interesa duten elkarte guztiei informazioa ematea.



## 2. Ardatza: Antolaketa sozial erantzukidea

### 4. Programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak.

12. Helburua: Emakumeen eta gizonen ohiko rolak aldatuz, eta txikitatik berdintasunean etxeko lanetan erantzukidetasunez lan egin dezaten irakatsiz, gizonek zaintzaren eta etxeko lanen erantzukizuna bereganatzea posible egiteko sentsibilizazioa sustatzea.

#### Ekintzak:

1. Hezkuntza arloan genero berdintasunari buruzko prestakuntzazko ekintzak garatzea gurasoekin.
2. Gizonez osaturiko taldeak sustatzea.

13. Helburua: Gure gizartean emakumeen alderdi eta ikuspegi guztietatik egindako ekarpenak ikusgai egitea.

#### Ekintza:

1. Mankomunitateko emakumeen historiari buruzko azterlana sustatzea.

### 5. Programa: Kontziliazio erantzukidea.

14. Helburua: Eguneroko bizitzako ekintzak egiteko joan-etorrietan erabilitako denbora murrizteko zerbitzuak sortzea.

#### Ekintzak:

1. Eskualdean menpekotasuna duten pertsona helduentzako eguneko zentro publiko baten bideragarritasuna aztertzeo diagnostikoa egitea
2. Lemoizen haurtzaindegi bat sortzeko bideragarritasuna aztertzea. Eguneroko bizitzako ekintzak egiteko joan-etorrietan erabilitako denbora murriztea.

15. Helburua: Lana eta familia bateragarri egiteko garraio publikoa planifikatzea.

#### Ekintzak:

1. Mugikortasunerako nuerriak aztertzea zerbitzu eta ekipamendu soziokomunitarioetarako sarbidea hobetzeko.
2. Zerbitzu soziokomunitarioetara iristeko garraio publikoen sarearen estaldura hobetzea.

16. Helburua: Hirien plangintza genero ikuspegitik egitea adiskidetza bideragarri posible egingo lukeen denboraren erabilera egokia posible egiteko.

#### Ekintzak:

1. Etxeko lanak eragiten duen isolamendua sahiesten laguntzea.
2. Mankomunitateko berdintasun teknikariaren eta arkitektoen arteko bilerak ezartzea.
3. EMUK (Uribe Kostako parte hartzeko mapa) berrikustea eta eguneratzea.

17. Helburua: Erabilerraztasuna posible egin, bai dagoeneko dauden gunek hobetuz bai hiriko gunek berriak eraikiz ere, oztopo arkitektonikoak ezabatzeo.

#### Ekintza:

1. Erabilerraztasunerako Planak idaztea halako tresnarik ez duten udalerrietan.

### 3. Ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria

#### 6. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa.

18. Helburua: Gaur egungo UKZM7Uko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarduera Protokoloa (2010-2011) luzatzea.

19. Helburua: Protokoloaren jarduera Plana ezagutaraztea.

##### Ekintzak:

1. Jarduera Plana Udalerrietako eta Mankomunitateko web atarietan zintzilikatzea.
2. Mankomunitatean dauden baliabideak ezagutarazteko materiala lantzea.
3. Helarazi beharreko materiala gaztediarentzat egokitzea.
4. EAEko kanpaina orokorrak jarraitzea (Berdinsarea).

20. Helburua: Sexuen arteko errespetuari eta berdintasunari buruzko kontzientzia maila handitzea. Emakumeen aurkako indarkeriaren agerraldi desberdinak ezagutzea eta identifikatzea eta indarkeria hori erazteko pertsona guztien inplikazioa sustatzea.

##### Ekintzak:

1. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko ostalaritzan eta merkataritzan sentsibilizatorako materialak hedatzea.
2. Gune publikoak gune seguruetan bilakatzea (EMUK)
3. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko jaien aldeko Kanpainarako ekintzak antolatzea.

21. Helburua: Langile espezifikoek prestakuntza jasotzea posible egitea

##### Ekintzak:

1. Hezkuntza arloan genero indarkeriari buruzko prestakuntzako ekintzak garatzea gurasoekin.
- E. 3. Berdintasunari eta genero indarkeriari buruzko prestakuntza ematea politikariei nahiz teknikariei.

#### 7. Programa: Arreta

22. Helburua: Baliabideei eta zerbitzuei buruzko ezagutzak nahiz sarbidea lortzeko jarraitu beharreko prozedurak zabaltzea eta eskumen arlo bakoitzean dituzten zereginak azaltzea.

1. Erabakiak hartzeko funtsezko informazioa jasotzen dituzten adierazleak eta dokumentazioa lantzea.
- H.1. Entitateen kontratazioarako agiri teknikoetan prestakuntzako jarduerak garatzea derrigorrezko betekizun bat izatea.

23. Helburua: Protokoloaren segimendurako, ezarpenerako eta ebaluaziorako arduradunak izendatzea.

1. Deribatutako kasuetan eman beharreko arretarako psikologia zerbitzuarekin jarraitzea eta orduak areagotzea

24. Helburua: Genero indarkeriaren errealitatea ezagutzea Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitatean, eta arretarako eskariei eta hauen bilakaerari buruzko benetako datuetan oinarrituta, baliabideen egokitasunaren inguruan erabakiak hartzea errazago egitea.

1. Genero indarkeriaren aurkako protokoloaren (2011-2014) segimendurako eta ebaluaziorako bilerak ospatzea.
2. Antzemandako kasu guztiei buruzko informazioa errazteko gutxienez hiruhilabetero
3. Plan honen burutzapenaren segimendurako eta ebaluaziorako txosten bat egitea urtero
4. Protokoloaren eraginkortasunaren segimendurako eta ebaluaziorako txosten bat egitea urtero

25. Helburua: Erakundeen erantzuna hobetzea Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitatean.

1. Ertzaintzaren zerbitzuan dauden itzulpenarako eta interpretaziorako baliabideak ezagutaraztea eta behar duenak sarbidea izatea.
2. Udaltzaingoa emakumezko langileak egon daitezen ahalegintzea.

#### 4.4.B. Interbentziorako Lehen Ardatza.

### EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA:

“Ahalduntzea” hitza ingelesezko empowerment berbatik dator eta bere esanahi zehatza “boterea irabaztea” da, ekonomiko, politiko eta gizarte mailan pertsonalki sendotzea. Pertsona bakoitzaren bizitzan eragina duten baliabideen eta erabakien gainean ahalmena eta boterea handitzea da ahalduntzearen definizioa.

Emakumeen taldeko eta norbanako kontzientzia hartzearen prozesua aipatzen du hitz honek, honen bitartez erabakiak hartzeko prozesuetan beren partaidetza gehitu egiten baita, boterera heltzeko eta eragina izateko gaitasuna handitzeaz gain.

Interbentziorako ardatz honetan hiru programa desberdin daude

#### 1. Programa:

##### Autonomia pertsonala eta balioak aldatzea

##### Helburuak:

1. Ariketa fisikoak egiteko ohitura duten, eta ondorioz, autozainketa fisikoaren aldeko ohiko praktikak dituzten neskatuen, emakume gazteen eta emakume helduen kopurua handitzea.
2. Etxeko lanaren garrantzia aitortzea.
3. Txikitatik hezkidetzatza sustatzea.

Emakundek programa honekin emakumeek autonomia pertsonalaren eskubidea gauzatzea sustatu nahi du, norberak duen balioa eta autoestimaren sentimendua aitortuz. Hau lortzeko beharrezkoa da emakumeen autonomia handitzea bai psikologiaren eta erabaki pertsonalak hartzeko arloan, bai fisikoaren eta gorputzaren zaintzaren arloan ere.

Esparru honetan, Mankomunitatean ospatzen den Martxoak 8ko kirol txapelketa mantendu egingo da, alde batetik, autonomia fisikoaren alde egiten duelako emakumeen kirol praktika mantenduz nahiz sustatuz, eta, beste aldetik, denboraren erabileraren aldaketa bultzatzen duelako, emakumeei animatuz beren burua zaintzeari denbora gehiago bidera dezaten.

Programa honetan ere erabakitzen da Sexu Heziketa programa garatzea ikastetxeetan (Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan).

Honekin umeeek txikitatik prestakuntza jasoko dute eta neskatoen autonomia pertsonala areagotu egingo da beren boterea eta harreman afektiboetako, sexualitateko eta ugalkortasuneko kontrola handituz.

Programa honetarako ezartzen diren ekintzak balioak aldatzearekin zerikusia dute eta, nagusiki, honako hauek dira:

- Kirolaren aldeko Martxoak 8ko txapeldeta mantentzea eta kirol klubekin elkarlanean aritzea.
- Etxeko lanaren garrantzia aitortzea eta esparru honetan lan egiten duten pertsonen eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa posible egitea.
- Ikastetxeetan genero berdintasunerako sensibilizaziozko eta prestakuntzazko ekintzak garatzea.
- Emakumeentzako ahalduntze eskola iraunkorra abian jartzeko eginkizuna bultzatzea lehenengo bi urteetan.

## 2. Programa:

**Baliabide ekonomikoetan eta sozialetan sarbidea izatea eta hauek kontrolatzea.**

### Helburuak:

4. Emakume enpresarien eta emakume ekintzaileen kopurua eta beren proiektuen bideragarritasuna handitzea.
5. Tradizioz gizonei bideratutako lanbideetan emakumeek sarbidea izateko prestakuntza espezifiko sustatzea.
6. Emakumeen eta gizonen arteko bretxa digitala eta emakumeek teknologia berrien erabileran aurkitzen dituzten zailtasunak murriztea.
7. Emakumeen aldetik alkoholaren gehiegizko erabilpena aurreikustea.
8. Emakumeek duten baliabide sozialetarako sarbidea hobetzea.

Emakumeen ahalduntzerako eta, ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko funtsezko programa bat izan arren, lehen zirriborroa egin zenetik azken dokumentua landu den arte, murrizketa gehien jasan dituen programetariko bat izan da.

Egungo krisialdi egoera aintzat hartuta, eta enpleguko politika aktiboen transferentziaren inguruan dagoen zalantzaren ondorioz, ezin dira adostu zeintzuk izango diren hurrengo lau urteetarako ezarri beharreko ekintzak, eta ezta nor izango den ekintza horiek bultzatzearen eta ezartzearen arduraduna ere.



Programa hau ezartzerakoan Gizarte Ongizate Sailarekin eduki beharreko koordinazioa garrantzitsua da, bazterketa sozialan egoteko arriskua duten emakumeekin lanean aritzen baitira eta beraz, sail honek zera sustatuko beharko du:

- Mankomunitatean eta Udal bakoitzean dauden baliabide sozialen eskariak eguneratzeko azterlan bat bultzatzea.
- Ondoren azterlan hori zabaltzea eta hedatzea.
- Mankomunitatea osatzen duten zazpi udaletako emakumeen alkoholaren gehiegizko kontsumoa aurreikusteko kanpaina lantzea.

Zentzu honetan, II. Plan honen bitartez ildo soziolaboraleko bidetik aurrera egitea proposatzen da emakumeen, eta bereziki, pobrezia egoeran edo bazterketa sozialean egoteko arrisku gehien duten emakumeen enplegurako sarbidea hobetzera bideratutako neurriak ezarriz.

Horretarako, Behargintzak, Berdintasun Teknikariarekin koordinatu eta gero, ondorengo ekintzak sustatuko ditu:

- Emakumeek lanari ekimenarekin ekitea sustatzea beren prestakuntzarako ohiko tailerretan.
- Prestakuntzazko eta sentsibilizaziozko ikastaroak egitea emakumeek eta gizonek tradizioz berdintasunezkoak izan ez diren lanbideetan sarbidea izan dezaten.

### 3. Programa:

#### Partaidetza soziopolitiko eta eragina.

9. Emakumeen elkarten arteko sareak sustatzea

10. Kirol eta kultur eskaintza emakumeen eskariei egokitzea, euren ahalduntzearen aldeko ikastaroak, tailerrak edota ekintzak eskainiz.

11. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko helburuak dituzten emakumeen nahiz gizonen elkarteak sustatzea

Emakumeen autonomia sozialak eta politikoak oinarrizko eskubide politikoetan sarbidea izatea suposatzen du. Zentzu honetan, Berdintasunerako Batzordea sendotu zen unetik aurrera helburu hau erdietsi nahi da, emakumeen partaidetza soziopolitiko hau posible egin dezakeen tresna dela ulertu baita.

Esparru honetan, emakumeen elkarteek administrazioekin, Emakundeekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin sarean elkarlanean ibil daitezen lan egingo da. 2006an abiatutako emakumeen elkarten parte hartzeko prozesuarekin jarraitzea aurreikusi da.

Oinarrizko ekintza emakumeei zuzendutako ahalduntzerako tailerrak abain jartzea izango da, Mankomunitateko alhalduntze eskola ezarri arte iraungo dutenak. Tailer hauen helburua emakumeak edozein esparrutan beren partaidetza handitzea da, prestakuntzari esker segurtasuna, autonomia, eta azken finean, emakumeen ahalduntzea areagotu egiten baita.



#### 4.4.C. Interbentziorako Bigarren Ardatza

##### ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA

